



## **CO2-AREN NEURGAILUAK INSTALATZEARI BURUZKO MOZIOA**

Azken hilabeteotan, ikerketa zientifiko askok frogatu dute aerosolak direla COVID-19 birusaren infekzioa transmititzeko biderik garrantzitsuena. Osasuna arautzen duten erakundeek, hala nola CDC-ek edo OMEk berak, denbora luzea behar izan dute aerosolek eragindako kutsatzeen garrantzia aitortzeko, eta, aldi berean, kontzientziazio eskasa eragin dute sektore publikoak, enpresa-sektoreak edo herritarrek gauzatu behar dituzten prebentzio-neurriei buruz.

Orain arte, COVID transmititzeko bide nagusia arnasbidea zela uste izan da, listu-jariakinen eta arnas jariakinen bidez (eztul, doministiku eta abarren bidez), Flüggeren tanta txikien irizpidearekin, edo baita birusa duten gainazalekiko kontaktuaren bidez ere (fomiteak). Hala ere, estatistikek gezurtatu egiten dute uste hori, eta kalkulatu dute kutsatzeen %85era arte aerosolak espazio itxietan luzaroan egotearen bidez gerta daitekeela, eta gainerakoa tanta txikien bidez gerta daitezkeela zuzenean. Kasu berezietan bakarrik kutsatzen da fomiteen bidez. Aerosolek ohiko babesak gaudituz ahal dituzte, pertsonen arteko distantzia, eskuen garbiketa eta segurtasunezko maskara barne, eta bereziki azken hauek ongi ixteko sistema egokirik ez badute.

Prebentzio hobearen bidez pandemiari aurre egiten lagun dezaketen segurtasun-tresnetako bat da prebentzio-planetan sartzea aerosolek sortutako transmisio-gaitasunaren berri ematen duten eta une honetan egokienak diren segurtasun-neurri guztiak: aireztapen jarraituko sistemak, gurutzatua eta banatua, ondo zigitatutako maskarak (elastometrikoak) eta CO2aren emaitzak neurtu eta zuzenean erakusten dituen sistema bat.

Gaur egun, ezin da birusa neurtzeko gailurik erabili arnasten den airean, baina, egingarria eta ekonomikoa bada, lokal baten aireztapen-maila zehaztea. Espazio batean zenbat eta pertsona gehiago egon, orduan eta karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) gehiago isurtzen da, batez ere aireztapen egokirik ez badago. Azken batean, ingurunean dagoen CO<sub>2</sub> mailak COVID-19 birusarekin kutsatzeko arriskuaren zeharkako adierazle gisa jokatzen du, kutsatutako pertsona bat egonez gero, eta arrisku potentzialaren adierazle gisa erabil daiteke.

Ingurumenean dagoen CO<sub>2</sub>a neurtzea erraza da, eta merkatuan badaude arrazoizko prezioetan homologatutako neurgailuak. Adituek gomendatzen dute segurtasun-atalasea milioi bakoitzeko 700 zati baino gutxiagokoa izatea, SARS-COV-2 birusa kutsatzearen ondoriozko arriskua murrizten laguntzeko. Hori egingarria eta teknikoki inplementatzeko erraza da, bai eraikin publikoetan, bai negozio partikularretan, neurgailuen eta

erreproduzio-gailuez baliatuz, jendeari emaitzen berri denbora errealean emateko, aireari edo airearen hezetasun erlatiboari buruzko beste aldagai batzuen gaineko informazioa ematen zaion modu berean.

Aerosolen bidezko transmisioaren prebentziorako gida eguneratu batek eta CO2 neurgailuak erabiltzen ohitzeko kanpaina batek, besteak beste, gure udalerriko lokalen segurtasun objektiboa areagotuko luke, eta, aldi berean, segurtasun indartua emango lieke auzokideei, orain arte egiten genituen gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-erabilera asko berreskuratu ahal izateko normaltasun berri bati berrekiteko.


Gainera, neurri horiek ez lirateke soilik erabilgarriak izango COVIDerako, baita aerosolek transmititutako beste arnas infekzio batzuetarako ere erabil litezke, gripea kasu.

Azaldutakoagatik, honako hauek proposatzen ditugu:

- 1.- Informazio eguneratua eta beharrezko prebentzio-neurriak sartzea COVID-19 infekzioa aerosol bidez transmititzeari buruz, udaleko gidetan edo babesteko protokoloetan.
- 2.- CO2 neurtzeko eta emaitzak erakusteko gailuak instalatzea eraikin publikoetan eta espazio itxietan ematen diren zerbitzu publiko guztietan.
- 3.- Ostalaritzari eta titulartasun pribatuko beste negozio batzuei laguntzeko udal-planean beharrezkoak diren informazio eta prebentzio neurriak sartzea, udalerriko tokiko merkataritzan ere segurtasun-maila bera ezarri ahal izateko.
- 4.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin adostea, hezkuntza-zentro publikoetarako tokiko titulartasuneko eraikinak mantentzeko eskumenen barruan, 1 eta 2 akordioetan zerrendatutako neurriak ezartzea.

Lasarte-Orian, 2021eko martxoaren 25ean

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosen bozeramailea



David Ares